

Gaur dator Hernanira orain arteko 'Korrika'rik jendetsuena

■ 40 taldek erosi dute Kilometroa ■ Kilometro berezia euskara ikasten ari direnek egingo dute ■ Zita: 19:45etan Zinkoenean ■ 'Korrika Txikia' 15:00etan, udaletxe atzetik.



Kantuzeko korrikalariak, orain bi urteko ekitaldian. (Argazkia: Aek.)

KORRIKA Hernanira bidean da eta gaur arratsaldean iritsiko da. Aek-k 19:45etarako egin du deialdia Zinkoenean biltzeko.

Astigaratik barrena sartuko da eta antolatzaileek aurten inoiz baino jende gehiago espero dute. Hernanik, berez, 50 kilometrotik gora osatu beharra zeuzkan -Astigarratik Basakabi artekoak- eta denak saldu dira. Hernanin bertan ez dira inoiz 20 talde baino gehiago izan eta aurten 40 taldek erosi dute kilometroa. "Jendea asko mugitu da kilometroak erosteko dirua biltzen eta horrek ere jende asko ekarriko du" esan dio Kronikari Luis Intxauspe antolatzaileak.

IBILBIDEA

Korrikak herri barruan ibilbide hau egingo du: Zikoenea-Txirrita-Urbieta-Marieluts-Latsunbe-Elkano-Lizeaga-Larramendi-Atzieta-Kardaberaz-Zinkoenea-Txirrita-Urbieta-Kale Nagusia-Plaza-Kardaberaz-Balantxa-Karabel eta Uru-mean gora. Itzultzeko autobusak izango dira. Korrikak orri bat atera du infomazio horrekin guztiarekin.

KORRIKA TXIKIA

Ikastetxe guztietako 1.500 ume aterako dira aurten ere Korrika Txikian eta herri barruan ibiliko dira, udaletxe atzetik aterata. □

ESKUZ ESKU

- | | |
|--------------------------|---------------------------|
| 1- Martindegia auzoa | 22- Orona |
| 2- Dobera elkarte | 23- Orona-langileak |
| 3- Udal euskaltegia | 24- Atofina Elektrokimika |
| 4- Berriak eta Tolarea | 25- Epela auzoa |
| 5- Euskara ikasleak | 26- Fagollaga jatetxea |
| 6- Langile ikastola | 27- Ozenki abesbatza |
| 7- Langile-DBH | 28- Txirrita eskola |
| 8- Hernani Institutua | 29- Ereñotzu auzoa |
| 9- Urumea ikastola | 30- Kronika-langileak |
| 10- Hernaniko Udala | 31- AEK |
| 11- Gazte Txokoa | 32- CD Hernani |
| 12- Elizatxo ikastola | 33- LAB |
| 13- Molotoff Irratia | 34- Zutik |
| 14- Ttarla dantza taldea | 35- Udaletxeko langileak |
| 15- Presoak | 36- Arano |
| 16- Kantuz abesbatza | 37- Iraulio Panttalone |
| 17- Euskal Herriarrok | 38- Adarra lan tresnak |
| 18- ARM-langileak | 39- EHE |
| 19- Zikuñaga-langileak | 40- Ibabe-Seijo koadrila |
| 20- Arraun elkarte | 41- Koadrila bat |
| 21- Bizilan lantegia | |



Epele auzoa 7
HERNANI
☎ 943 552 480
Mobila: 667 208 702

AMEGAR, C. B. ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK -TB -
BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
Txirrita kalea 15


Tel 943 551125-Faxa 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)



- dekorazioa
- altzariak
- block-ateak
- erreformak
- leihoak
- eskailerak

ERAKUSKETA

Kardaberaz kalea 41
Tel. eta Faxa: 943 333 487
E-mail: mariapuy@euskalnet.net
20120 HERNANI



ARRANDEGIA

Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI

Gaur da azken eguna Babes Ofizialeko etxeak eskatzeko

■ Donostian apuntatu behar da, Jaurilaritzak Handia kalean duen bulegoan ■ Hernaniko 96 etxe zozketatzen dira.

Eusko Jaurilaritzaren *Etxebide* programaren barruan, gaur itxiko da Babes Ofizialeko etxebizitzetan apuntatzeko epea. Joan den asteartea arte aurrezki kutxetan egin zitekeen tramite hori eta orain Donostiara jo behar da.

2000KO ERRENTA ETA ERROLDA

Dokumentazio pertsonalaz gain, aurkeztu beharreko agiriak bi dira: 2.000garren urteko Errenta Aitorpenaren foto-

kopia (edo egin beharrik ez izanaren justifikazioa eta gainera gutxieneko diru sarrera bat); eta errolda agiria.

48 HERNANIARRENTZAT

Etxeak Antziolan egingo dituzte, lehen eraiki berriak dituzten inguru horretan. 96tik 48 etxebizitza hernaniarren-tzako izango dira zozketan. Hala ere, beste herri askotan ere egingo dira etxeak, eta bakoitzak hiru he-rri aukeratu lezazke zozketan sartzeko. □

ABESBATZEN TOPAKETA

Kalez-kale eta parrokian kontzertuak, bihar

■ Kantuzek antolatua ■ Alboka, Alberto Agirre eta Ozenki abesbatzak eta Hernaniko txistulariak gonbidatu dituzte.



Hernaniko abesbatzak elizan emandako kontzertu batean.

BIHAR, larunbata, Buruntzaldeko abesbatzen topaketa izango da Hernanin. Arratsaldeko 17:00etan kalez kale ariko dira kantuan lau abesbatzak. 18:30-etan merienda izango dute eta 20:00etan kontzertua. Lau abesbatzak eta Txistulari Ban-

da izango dira Juan Bataiatzaile parrokian.


1991-EAN HASIA

Lasarten antolatu zuten lehe-na eta orain Buruntzaldeko lau herrietan egiten da, urtero batean. □

■ PELOTA -BIGARREN MAILAKO BURUZ BURUKOA-

Iñaki Esnalek Otxandorenaren kontra jokatu du lehen partidua

■ Apirilaren 15ean jokatu da partidua ■ Astelehenean Telleriak Xalari irabazi ezkerro Hernanin jokatu dute Esnal eta Otxandorenak.



Iñakik sakean izango du partiduko kakoetako bat.

ENPRESA bakoitzean aukeraketa fasea jokatu, hasteko zorian da bigarren mailako buruz burukoa. 9 pelotari ariko dira nor baino nor: Esnal, Otxandorena, Xala, Telleria, Tirapu, Galarza, Minguez, Berraondo eta Fuertes.

IDEIAK GARBI

Iñakik ideiak garbi ditu partidurako “sake-errematera jokatu behar dut, Otxandorenarekin ezin baitut peloteoan hasi”. Kontrarioa gogorra duela aitortu arren badu irabazteko esperan-tzarik “ni irabaztera aterako naiz -dio- Otxandorena atzean oso ondo moldatzen da, baina, ikusiko dugu aurrean nahastu ezkerro. □

BERTSOLARITZA

Hernaniarrak Osiñalde eta Orixe sarietako finaletan

■ Osiñalden, I. Eizagirrek kantatuko du, larunbatean ■ Orixen, igandean, Zelaia, Agirre eta Legarretak.

DATORREN asteburuan bi sariketetako finalak jokatu dira, bata Gabirian eta bestea Añorgan. Gabiriakoa larunbata gauean izango da, afal ostean, 22:30ak aldera. Ixiar Eizagirre hernaniarrak kantatuko du, kontrario Agirreazaldegia, E. Goikoetxea, Sarasola, Apalategi eta Ostolaza dituela.

AÑORGAN, IGANDEAN Orixe finala igande eguerdian jokatu da, Añorgako zinean, 11:30etan. Hernaniko bertso eskolako hiru arituko dira: Iñaki Zelaia eta Unai Agirre hernaniarrak eta Xabier Legarreta aranoarra. Horiekin Munduate, Jimenez eta Agirreazaldegik kantatuko dute. □

ODOL EMATEA

Apirilean 84 lagunek eman dute odola

HILEROKO lehen asteartean ematen da odola Hernaniko anbulatorioan. Hileabete hone-tan 84 poltsa eman dituzte; emaleetatik 11 berriak izan dira. Odol emaleez gain, organu emale berriak ere apuntatzen dira anbulatorioan. Oraingoan 3 izan dira beren organuak emateko prest agertu direnak. □

Iratxe Sorzabalek torturatu egin dutela salatu du epailearen aurrean

■ 10 zm zabaleko ubeldua du, hasi lepotik eta ipurgaineraino ■ Elektrodoek egina, Iratxek berak esan duenez ■ Epaileak 20 atentatu leporatu eta kartzelan sartu du.

IRATXE Sorzabalek torturak salatu zituen herenegun goizean Guardia Zibilak Ismael Morenoren esku utzi zuenean. AAB-k salatu dutenez, Hernanin atxilotu eta Madrilera bi-

dean hasi zitzaizkioten kolpeka eta burutik behera ia itotzeraino boltsa jartzen. Madrilan elektrodoak jarri omen zizkioten eta arratsaldean bertan ospitalera eramane zuten. “Ira-

txek lepoko bi hezur mugituta zeuzkan, kozkor ugari eta lepotik ipurgainerainoko ubeldua” dioten AAB-ek. Ospitaletik atera eta gero tortura psikologikoa egin omen zioten. □

ESKOLARTEKO KIROLA

■ DATOZEN hiru asteburuetan ez da kirol eskolarrik izango, aste santuetako oporrak direla-eta. Apirilaren 28an jokatu dira denboraldia bukatzeko falta diren azken partidua eta maiatzaren 26a arte kirol eta ekintza bereziak egingo dituzte.

Ekintza berezien artean urtean zehar egin ez dituzten kirole-tan ibiltzeko aukera izango dute ikastetxeetako neska mutilak, beti kirol beretan aritu gabe. □



Umeak saskibaloian.

Eugenio-Angel eta Tejedor-Miguel, finalera

■ Juan-Luisek eta Pello-Mikelok jokatu dituzte hiru eta laugarren postuak.



Mikelo (betaurrekoduna)/Pello-Eugenio-Angel (bizkarrez).

PEÑA Otañoko mus txapelketa iritsi da finalera. Asteaken gauean jokatu zuten finalur-rekoa: Tejedor/Migel Juan-Luisen kontra eta Eugenio/Angel Mikelo/Pelloren kontra. Iazko txapeldunak (Eugenio-Angel) eta Tejedor/Angel fina-

lerako sailkatu dira eta beste bi bikoteek higarren edo laugarren postuarekin konformatu beharko dute

Finaleko eguna ez dago orain jarria, baina, Aste Santuetako oporrak pasa eta gero jokatu da. □

■ HITZ BITAN

✓ KARTEL LEHIAKETA

Bertsolari txapelketarako kartela lehiaketara. Euskal Herriko txapelketa urriaren 21etik abenduaren 16ra jokatu da. Kartela aurkeztu nahi duenak maiatzaren 14tik 25era egin beharko du Bertsotzale elkartearen: Igeldo ibilbidea 25-behea, La Sirena aterpetxea, 2008 Donostia. Lema: BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2001; Motiboa: Hitz informatzioaren gizartearen; formatua: 50zm zabala eta 70 zm luze. Sari bakarra izango da 250.000 ptakoa. Informazio gehiago 943-217798 telefonon.

✓ DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Bazkideei Korrikako deia egiten die Doberak. Doberak Korrikako kilometroa Martindegiko rotunda berrian hartuko du gaur. Doberak, korri egin nahi duten bazkideei, dei egiten diete arratsaldeko 19:20 aldera bertan egoteko.

✓ LAPURRETA SAIKERA GALARRETAN

Hiru lagun enkaputxatu sartu ziren pistolekin. Lehengo larunbatean, gaueko 22:30ak aldera, azken korredoreak zeuden Galarretako frontoian. Hiru lapur pistolekin sartu eta behean zeuden bi korredore mehatxatu eta lotu zituzten; goian zeudenak, ordea, pasatzen zenaz jabetu eta lehioetik irten ziren laguntza eske. Ertzainaren patruila bat pasa zen bertatik, eta igo ziren frontoira; berehala patruila bereziak ere agertu ziren. Guztia miatu eta ez zuten inor aurkitu, norbait laguntza bila joan zela jabetuta-edo ordurako alde egin baitzuten lapurrek. □

ASTEBURUKO ZINEA BITERIN

‘No te fallaré’ eta ‘El pequeño vampiro’

■ *No te fallaré*, helduentzat, gaur 22:30etan, larunbaten 19:30ak eta 22:30etan eta igandean 19:30etan. ■ *El pequeño vampiro* larunbat eta igandean 17:00etan.

IRRATIAK

(E.M. 99.2) Korrikari buruzko saio berezia goiz eta arratsalde 11:00etan: Malores Etxeberriarekin Hernaniko egoera soziolinguistikoa aztertuko dute.

16:00etan: Gerra garaiko giroa, Urumea ikastolaren sorrera, Big Beñat...

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750
►Jokalarri anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Sagastiberri Urbieta, 7
☎ 943 552941
►Gauetz: Sagastiberri Urbieta, 7
☎ 943 552941